

Lurralde : invest. espac.	41	2018	p: 323-347	ISSN 0211-5891	ISSN 1697-3070 (e)
---------------------------	----	------	------------	----------------	--------------------

**GAUR EGUNGO ESPAINIAKO UNIBERTSITATEEN
GEOGRAFIA SAILEETAKO IKERKETA-GAIK:
JCR-EKO GEOGRAPHY ARLOKO ALDIZKARIETAN
ARGITARATU DIREN ARTIKULUEN GAIEN
AZTERKETA (2010-2016)**

Malen GALLASTEGUI

Mikel GURRUTXAGA

Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia Saila
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
C/ Tomás y Valiente s/n. 01006 Vitoria-Gasteiz
malengallas@hotmail.com / mikel.gurrutxaga@ehu.eus

Acceptado: 2017-06-22

Laburpena: Gaur egungo Espainiako Unibertsitateen Geografia Saileetako ikerketa gaiak: JCR-eko *Geography* arloko aldizkarietan argitaratu diren artikuluen gaien azterketa (2010-2016).

Espainiako unibertsitateen Geografia Sailen egungo ikerketa-gaiak aztertu dira. Horretarako, *Journal Citation Reports-JCR* datu-baseko *Geography* arloan dauden aldizkariaren 477 artikulua, 2010-2016 epean argitaratuak eta espainiako ikertzaileak egindakoak, analizatu dira. Ikerketa-gai sailkapen sistema bat eratu da. Artikuluen gai nagusienak, ordenan jarrita, hirigintza, ingurumena, demografia, ekonomia, paisaia, ura, turismoa, lurralde antolakuntza eta kartografia izan dira. Deigarria da lurralde antolamendua gaia artikuluko kopuru erlatiboki baxua daukela, seguruenik zaila delako ikuspegi-integratu batetik egindako lurralde-ikerketak JCR-ko aldizkarietan argitaratzea, lurralde-gai espezializatuak lehenesten direlako. Lortutako emaitzen inplikazioak zientzia Geografiko garapenerako eztabaidatzen dira.

Gako hitzak: Geografia, artikuluko zientifikoak, ikerketa gaiak, aldizkari zientifikoak, Estatu espainiarra.

Resumen: Temas actuales de investigación de los Departamentos de Geografía de la Universidades españolas: Análisis de los temas de los artículos publicados en las revistas del campo *Geography* del JCR (2010-2016).

Se han analizado los temas de investigación actuales de los Departamentos de Geografía de las Universidades españolas. Para ello se han estudiado los 477 artículos de las revistas indexadas en la categoría *Geography* de la base de datos *Journal Citation Reports-JCR* publicados en 2010-2016 realizados por investigadores españoles. Se ha creado un sistema de clasificación de los temas de investigación. Los principales temas de investigación han sido, en este orden, urbanismo, medioambiente, demografía, economía, paisaje, agua, turismo, ordenación del territorio y cartografía. Cabe destacar que el tema de ordenación del territorio tiene un número de artículos relativamente bajo, probablemente debido a que es complicado que las investigaciones realizadas desde una visión territorial integrada se publiquen en las revistas del JCR, dado que se priorizan temas territoriales especializados. Se discuten las implicaciones de los resultados obtenidos para el desarrollo de la ciencia Geográfica.

Palabras clave: Geografía, artículos científicos, temas de investigación, revistas científicas, Estado español.

Abstract: Current research subjects of Geography Departments in Spanish Universities: Assessing the subjects of articles publicated in journals of Geograhpy field of JCR (2010-2016).

The current research topics of the Departments of Geography of the Spanish Universities have been analyzed. For this purpose, 477 articles of journals of Geography field in Journal Citation Reports-JCR database, published in 2010-2016 by Spanish researchers, have been studied. A classification-system of research topics has been created. The main research topics have been, in this order, urban planning, environment, demography, economy, landscape, water, tourism, comprehensive spatial planning and cartography. It should be noted that the issue of comprehensive spatial planning has a relative low amount of articles, probably because it is difficult for integrated territorial research works to be published in JCR-journals, given that specific territorial issues are prioritized. The implications of the results obtained for the development of Geographic science are discussed.

Key words: Geography, research articles, research themes, scientific journals, Spanish Estate.

1. SARRERA

Azken hamarkadetan Espainiako unibertsitateen Geografia Sailen ikerketa-gaien panorama nahiko anitza, irekia eta zabala izan da (FARINÓS, 2000; NOGUÉ & ROMERO, 2006; VILÀ VALENTÍ, 2008). Aldi berean, beste zientzia batzuk aldagai espazioetan gero eta gehiago interesatu dira (ingenieritza, natur zientziak, soziologia, etab.) (CAPEL, 2010; BOSQUE, 2015; BUZAI, 2015) eta horregatik geografo ikertzaile batzuen lanaren ikusgarritasuna handitu da. Horrek mesede, eremu berriak sortu dira geografoentzat elkarlanerako beste profesional eta akademikoekin. Geografia jakintzagaiko egoera ireki eta bizi honek, bai banakako eta baita taldekako ikerketa-lanak bultzatu ditu (GÓMEZ MENDOZA, 2013; OLCINA & LOIS, 2013). Azken hamarkadetan lurralde-gai batzuen zabaltzea (migrazioak, globalisazioa, turismoa, lurralde plangintza, hirigintza, arriskuak, ingurugiroa, etab.) gertatu da eta hori oso mesedegarria izan da Geografiari buruzko ikertzaile eta zientzilarietzako (OLCINA & LOIS, 2013).

Geografia jakintzagaian azken urteetan sortu diren ikerketa-gai ezberdinei dagokionean, tesi doktoraletan azaltzen ari diren gai barietateen izugarritzko igoera eman dela diote DE LÁZARO Y TORRES & GONZÁLEZ GONZÁLEZek (2013). Esan daiteke, arrisku moduan, “Geografia” hitza balorea edo nabaritasuna galdu duela, hitz-gakoa eta deskriptore bezala, azken urteetan. Tesi, lan eta artikulu askotako izenburuak, ez dute “geografia” hitza eramaten, gai ezberdinen barietatearen igoera eman den bitartean. 1990 eta 2012 urteen artean, geografiari buruzko gai ezberdinak sortu dira eta honek, urte horietan Geografia zientziaren barnean irakurri diren tesi eta lan guztien herenak bakarrik “Geografia” hitza deskriptore bezala eramatea eragin du. Honek, “Geografia” hitzaren beherakada bat ekarri duela esan dezakegu. Eta baita, Geografiako espezialitate ezberdinen igoera bat ere bai (DE LÁZARO Y TORRES & GONZÁLEZ GONZÁLEZ, 2013).

Honako hauek dira, Espainiako unibertsitateen Geografia Saitetan garapen handiago daukaten ikerketa gaiak, Estatu osoan eraberrita dauden ikerketa-talde kopuruaren arabera (altuenetik, baxuenera) (OLCINA & LOIS, 2013) (Taula 1).

Geografiako ikerketa-gaiak Espainian, dauden ikerketa talde zenbakiaren arabera (altuenetik baxuenera)
Geomorfologiari buruzko ikerlanak (higarura prozesuak ere)
Lurralde azterketa; Lurralde Antolakuntzari buruzko ikerlanak
Eskualde eta tokiko garapenei buruzko ikerlanak
Turismoari buruzko ikerlanak
Paisaiari buruzko ikerlanak
Demografiari buruzko ikerlanak
Geografia Informazioko Teknologiei buruzko ikerlanak
Hiri geografiari buruzko ikerlanak
Landa geografiari buruzko ikerlanak
Garapen jasangarria eta ingurumenari buruzko ikerlanak
Klima eta klima aldaketari buruzko ikerlanak
Giza geografiari buruzko ikerlanak
Geografia fisikoari buruzko ikerlanak
Urari buruzko ikerlanak
Historiari buruzko ikerlanak (kartografia historikoa ere)
Kostaldeari buruzko ikerlanak
Biogeografiari buruzko ikerlanak
Latinoamerikari buruzko ikerlanak

Taula 1. Geografiako ikerketa-gaiak Espainian, dauden ikerketa talde kopuruaren arabera.

Iturria: OLCINA & LOIS (2013).

Lehenengo hiru gaiak nahiko komunak izan dira aspalditik Geografia zientzian. Baina badaude azken urteetan gehitzen joan diren talde berri eta ezberdinak: Geografia Informazioko Teknologia, paisaia, aldaketa klimatikoa, jasangarritasuna, etab. (OLCINA & LOIS, 2013).

AGE *Asociación de Geógrafos Españoles*/Geografo Espainiarren Elkartearen barnean eratu diren lan-taldeek, geografo ezberdinen arteko elkarlanak garatzerako orduan ere asko lagundu dutela aipatu beharra dago (MATA, 2013). Gaur egun, 15 lan talde ezberdin daude (ASOCIACIÓN DE GEÓGRAFOS ESPAÑOLES, 2017) (Taula 2).

AGE-Geografo espainiarren elkartearen lan taldeak
Klimatologia
Irakaskuntza geografikoa
Eskualde mailako ikerketak
Latinoamerikako geografia
Geografia fisikoa
Ekonomia
Populazioa
Landa geografia
Zerbitzuak
Turismoa eta aisialdia
Hiri geografia
Geografia Informazioko Teknologia
Geografiako pentsaera historikoa
Tokiko garapena
Paisaia

Taula 2. AGE-Geografo espainiarren elkartearen lan taldeak.

Iturria: MATA (2013).

Gratu Amaiera Lan honetan gaur egungo Espainiako unibertsitateen Geografia Sailen ikerketa-gaien panorama anitza aztertuko da. Horretarako, 2010 eta 2016 urteen artean Geografiako aldizkarietan argitaratu diren artikuluak aztertuko ditugu. Artikulu kopuru erabilgarri bat izateko, nazioarteko datu-baseetan sartuta dauden aldizkari-multzo mugatu bateko artikuluak aztertuko dira.

Bi nazioarteko aldizkari zientifikoen datu-base daude gaur egun munduan:

- Thomsom Reuters ISI-ko “*Journal Citation Reports*” JCR, eskuragarri “*Web of Science*” WOS webgunean (THOMSOM REUTERS ISI, 2017), eta
- SCImago-ko “*SCImago Journal & Country Rank*” SJR, Elsevier argitaletxeko SCOPUS datuetan oinarrituta (SCIMAGO, 2017).

SJR-ko datuetan sarrera libre da Internetetik baina ez da horrela JCR-koetan. JCR datu-basean sartzeko “*Web of Science*” WOS webgunea erabili behar da. “*Web of Science*” WOS webguneak (THOMSON REUTERS ISI, 2017) ez ditu bakarrik Geografiako lanak biltzen, zientzia diziplina ezberdinetakoak baizik. 1900etik aurrerako informazioa argitaratzen da bertan, nahiz eta 1945 urtetik aurrera ematen den informazio gehitze eta handitzea nabaria izan. Ordutik aldizkari zientifiko nagusienetan erreferentziazko plataforma bihurtu da, besteak beste jakintza guztietako lanak biltzen dituelako: arlo zientifikoak, teknologikoak, humanistikoak eta soziologikoak eta, beraz, oso lagungarri bihurtu delako edozein ikerketa lanetan.

WOS webgunean sartzeko beharrezkoa da FECYT-eko (“*Fundación Española para la Ciencia y la Tecnología*”) sarbide-lizentzia erabiltzea, eta horretarako Unibertsitate edo ikerketa-zentru bateko ordenagailuak erabili behar dira. WOS-en garrantzi handiko datuak gordetzen direnez, bakarrik erakunde jakin batzuek eskuratu ditzakete bertako datuak. Hauek dira datu base horietara sartzeko aukera duten erakundeak: unibertsitateak (bai publiko eta baita pribatuak ere), zentro teknologikoak, zientzia parkeak, nekazal ikerketarako zerbitzu zentroak, ikerketa erakunde publikoak, osasun ikerketa zentroak eta I+D administrazio publikoak. Aipatutako erakunde hauek, web horietan dauden datu guztiak erabil ditzakete, kontsulta, ikerketa eta lanak egiteko.

FECYT-i buruz ere hitz egin beharra dago, hau baita “*Web of Science*” Espainia mailan kudeatzen duena. FECYT-ek, “*Fundación Española para la Ciencia y la Tecnología*”, bi erreferentzia bibliografiko datu-base global nagusi kudeatzen ditu. Esan bezala bat da WOS eta bestea SJR (Elsevier argitaletxeko SCOPUS datuetan oinarrituta).

Bi datu-base hauetan dauden jakintza-arloen sailkapena aztertu dira, geografoen ikerketarekin zerikusia daukaten arloak bereizteko, horrela aztertuko diren Geografiari buruzko aldizkariak hautatzeko.

JCR-ren barnean gutxienez 12 jakintza-arloak daude geografoen ikerketarekin zerikusia dutenak (Taula 3) eta 11 arloak SJR-en (Taula 4).

JCR-ko arloa geografoen ikerketarekin zerikusi handiagoa eta zuzenagoa duena “*Geography*”koa da, 78 aldizkariz osatutakoa. Aldi berean, SJR-ko arloa geografoen ikerketarekin zerikusia handiagoa eta zuzenagoa duena “*Geography, Planning and Development*”koa da, 623 aldizkariz osatutakoa (15 aldizkari espainarrak eta 608 atzerritarrak).

Kopuru hauek ikusita, Gradu Amaierako Lan honetan aztertuko diren artikulua mugatzeko (kopuru erabilgarri bat erabiltzeko), JCR-ko “*Geography*” arloko 78 aldizkariak erabiliko dira. JCR-ko “*Geography*” arlo honetan 2 aldizkari espainar eta 76 atzeritar kokatzen dira (Taula 6).

JCR-eko arloak geografoen ikerketarekin zerikusia dutenak	
SSCI-Social Science Citation Index	
“Geography”	(lan honetan aztertuko den arloa)
“Planning & Development”	
“Urban Studies”	
“Environmental Studies”	
“Area Studies”	
“Demography”	
“Social Sciences, Multidisciplinary”	
“Womens Studies”	
“Transportation”	
SCIE-Science Citation Index	
“Geosciences, Multidisciplinary”	
“Physical Geography”	
“Environmental Sciences”	

Taula 3. JCR-eko (“Journal Citation Reports”) jakintza gai edo arloak geografoen ikerketarekin zerikusia dutenak.

Iturria: Egileak egina Thomson Reuters ISI-ko (2017) datu-basean oinarrituta.

SJR-eko arloak geografoen ikerketarekin zerikusia dutenak	
“Geography, Planning and Development”	
“Urban Studies”	
“Social Sciences (miscellaneous)”	
“Demography”	
“Nature and Landscape Conservation”	
“Environmental Science (miscellaneous)”	
“Earth and Planetary Sciences (miscellaneous)”	
“Global and Planetary Change”	
“Earth-Surface Processes”	
“Gender Studies”	
“Transportation”	

Taula 4. SJR-eko (“SCImago Journal & Country Rank”, SCOPUS-eko datuetan oinarrituta) jakintza gai edo arloak geografoen ikerketarekin zerikusia dutenak.

Iturria: Egileak egina SCIMAGO-ko (2017) datu-basean oinarrituta.

2. HELBURUAK

Gradu Amaiera Lan honetan gaur egungo Espainiako unibertsitateen Geografia Sailen ikerketa-gaien panorama anitza aztertuko da. Horretarako, azken 7 urteetan (2010-2016) argitaratu diren Geografiari buruzko artikulua-multzo bat aztertuko da, geografo espainarren ikerketa-gai nagusiak bereizteko. Zehazki JCR nazioarteko datu-base zientifikoko “*Geography*” arloan dauden aldizkariak kontutan hartuko dira. Beraz lan honen helburu nagusia, artikulua hauen azterketa sakon bat egitea izango da. Artikulu hauen sailkapen orokor eta zehatz batetik hasita eta hau oinarritzak hartuz, honek izan dituen eragin eta ondorioak azaldu arte ikertuko da gaia. Helburu zehatzak hurrengo hauek izango dira:

- Aztertu, JCR-eko “*Geography*” arloko aldizkarietan oinarrituta, Espainiako unibertsitateen Geografia Saileetako ikertzaileen artikuluen presentzia 2010-2016 epean. Horretarako hurrengo pausoak emango dira:
 - Hauteman zein aldizkarietan argitaratu duten artikulua Espainiako unibertsitateen Geografia Saileetako ikertzaileek.
 - Aztertu artikulua kopuru totalaren urtekako bilakaera 2010 eta 2016 artean.
 - Aztertu zenbat artikulua eta aipamen eman diren aldizkari bakoitzean.
- Aztertu, JCR-eko “*Geography*” arloko aldizkarietan oinarrituta, Espainiako unibertsitateen Geografia Saileetako ikerketa-gaiak 2010-2016 epean. Horretarako hurrengo pausoak emango dira:
 - Artikuluaren ikerketa-gai ezberdinen sailkapen sistema bat eratu.
 - Ikerketa-gai bakoitzean argitaratu diren artikulua kopurua eta ehunekoa neurtu, horrela ikerketa-gai nagusiak bereizteko.
- Ondorioak atera lortutako emaitzekin Espainiako unibertsitateen Geografia Saileetako i) presentziari buruz JCR-eko “*Geography*” arloko aldizkarietan, eta ii) azken urteetako (2010-2016) ikerketa-gai nagusiei buruz.

3. METODOLOGIA

3.1. Espainiako unibertsitateen Geografia Saileetako ikertzaileen artikulua JCR-ko *Geography* arloan 2010-2016 epean

Aipatutako JCR-eko *Geography* arloko 78 aldizkarietan (Taula 5) azken urteetan (2010-2016 epean) argitaratu diren artikuluen artean Espainiako unibertsitateen Geografia Saileetako autorekoak detektatzeko, THOMSON REUTERS ISI-ko (2017) Web of Science (WOS) erabili da, FECYT-eko (*Fundación Española para la Ciencia y la Tecnología*) sarbide-lizentzia erabiliz.

Espainiako unibertsitateen Geografia Saileetako autoreko artikulua aurkitzeko JCR-eko *Geography* arloko aldizkarietan, zehazki hurrengo irizpide hauek erabili dira *Basic Search* atalean:

Adress / Helbidea: Geog* SAME Spain

(horrela, edozein autoreko helbidean Geografia edo *Geography* hitzak eta Spain hitza agertzerakoan, artikulua hori hautatzen da).

Timespan / Epea: 2010 - 2016

Publitation type / Argitalpen mota: Article / Artikulua

Category / Jakintza-arloaren sailkapena: Geography

Horrela, FECYT-ek erabiltzen duen aipaturako informazio multzo ikaragarri horretatik, JCR-ko *Geography* arloan argitaratu diren Geografiari buruzko artikuluak hautatu dira lan hau burutzeko. Artikulu hauek 2010-2016 epean argitaratu dira eta bere egileak Espainiako unibertsitateen Geografia Saileetakoak dira.

Zabala da artikulu bakoitzari buruz ateratzen den informazioa WOS webgunea (THOMSON REUTERS ISI, 2017) erabiliz:

- Artikuluen titulua.
- Artikuluen egileak.
- Zein aldizkarietan argitaratu diren artikuluak.
- Zein urtean argitaratu diren artikuluak.
- Zenbat aipamen izan dituen artikulu bakoitzak (beste JCR-ko artikuletan).

Datu guzti hauek elkar hartuta kalkulatu dira hurrengo aldagaiak:

- Zehazki zein aldizkarietan argitaratu dituzten artikuluak Espainiako unibertsitateen Geografia Saileetako ikertzaileek.
- Artikulu kopuru totalaren urtekako bilakaera 2010-2016 urteen artean, Espainiako unibertsitateen Geografia Saileetako ikertzaileak egindakoak.
- Artikulu eta aipamen kopurua aldizkari bakoitzean.

3.2. Ikerketa-gaien sailkapena eta neurketa

Geografiako ikerketa-gai ezberdinen sailkapen sistema bat eratu da artikuluak sailkatzeko (Taula 5), beste autoreen antzerako sailkapenetan oinarrituta (LASANTA MARTÍNEZ & MARTÍN VIDE, 2013) eta lan honetako autorearen heziketa geografikoan oinarrituta. Ikerketa-gaien sailkapen orokor bat eratu da eta gehiago sakontzeko sailkapen zehatzago bat ere diseinatu da (Taula 5).

Sailkapen orokorra	Sailkapen zehatza
Lurralde antolamendua	<ul style="list-style-type: none"> • Lurralde antolamendua
Geografia fisikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Ingurumena <p style="text-align: center;">Biogeografia</p> <p style="text-align: center;">Fitogeografia</p> <p style="text-align: center;">Zoogeografia</p> <p style="text-align: center;">Geomorfologia</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ura • Meteorologia eta klima
Kartografia eta GIS	<ul style="list-style-type: none"> • Kartografia eta GIS
Ondare eta paisaia	<ul style="list-style-type: none"> • Ondare eta paisaia
Giza geografia	<ul style="list-style-type: none"> • Hirigintza <p style="text-align: center;">Garraioa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Demografia • Ekonomia • Turismoa
Beste batzuk	<ul style="list-style-type: none"> • Beste batzuk

Taula 5. Ikerketa gai orokor eta zehatzen sailkapena.

Iturria: Egileak egina.

Horrela, ikerketa-gai oroko eta zehatza bakoitzean argitaratu diren artikuluko kopurua eta ehunekoa kalkulatu da, ikerketa-gai nagusiak aurkitzeko (lan honetako 5.4. atalean).

Bukatzeko, artikuluko kopurua azterketa-eremu kokapenaren arabera ere neurtu da, geografo espainarrak atzerriko lurraldeei buruz ere ikertzen duten ala ez jakiteko (lan honetako 5.5. atalean).

4. EMAITZAK

4.1. JCR-ko *Geography* arloko aldizkariak Espainiako unibertsitateen Geografia Saileetako ikertzaileen artikuluekin

Aipatutako metodologia jarraituz, 477 artikulua hautatu dira lan hau burutzeko JCR-eko *Geography* arloko 47 aldizkarietan argitaratuak (Taula 6) 2010-2016 epean eta Espainiako unibertsitateen Geografia Saileetako ikertzaileek egindakoak.

JCR-ko <i>Geography</i> arloko 78 aldizkariak	
47 aldizkari artikuluekin	31 aldizkari artikulurik gabe
ANNALS OF REGIONAL SCIENCE	ASIA PACIFIC VIEWPOINT
ANNALS OF THE ASSOCIATION OF AMERICAN GEOGRAPHERS	AUSTRALIAN GEOGRAPHER
ANTIPODE	CAMBRIDGE JOURNAL OF REGIONS ECONOMY AND SOCIETY
APPLIED <i>GEOGRAPHY</i>	CARTOGRAPHIC JOURNAL
APPLIED SPATIAL ANALYSIS AND POLICY	ECONOMIC <i>GEOGRAPHY</i>
AREA	EMOTION SPACE AND SOCIETY
BOLETIN DE LA ASOCIACION DE GEOGRAFOS ESPAÑÓLES	EURASIAN <i>GEOGRAPHY</i> AND ECONOMICS
CANADIAN GEOGRAPHER-GEOGRAPHE CANADIEN	GEODETSKI VESTNIK
CARTOGRAPHY AND GEOGRAPHIC INFORMATION SCIENCE	GEOGRAFIE
CHILDRENS GEOGRAPHIES	GEOGRAPHICAL JOURNAL
COMPUTERS ENVIRONMENT AND URBAN SYSTEMS	GEOGRAPHICAL REVIEW
CULTURAL GEOGRAPHIES	<i>GEOGRAPHY</i>
ENVIRONMENT AND PLANNING A	GLOBAL NETWORKS-A JOURNAL OF TRANSNATIONAL AFFAIRS
ENVIRONMENT AND PLANNING D-SOCIETY & SPACE	ISLAND STUDIES JOURNAL
ERDE	JOURNAL OF ECONOMIC <i>GEOGRAPHY</i>
ERKUNDE	JOURNAL OF GEOGRAPHICAL SYSTEMS
EUROPEAN PLANNING STUDIES	JOURNAL OF <i>GEOGRAPHY</i>
GENDER PLACE AND CULTURE	MITTEILUNGEN DER OSTERREICHISCHEN GEOGRAPHISCHEN GESELLSCHAFT
GEOFORUM	MORAVIAN GEOGRAPHICAL REPORTS
GEOGRAFISK TIDSSKRIFT-DANISH JOURNAL OF <i>GEOGRAPHY</i>	NEW ZEALAND GEOGRAPHER

JCR-ko Geography arloko 78 aldizkariak	
47 aldizkari artikuluekin	31 aldizkari artikulurik gabe
GEOGRAFISKA ANNALER SERIES B-HUMAN GEOGRAPHY	POLITICAL GEOGRAPHY
GEOGRAPHICAL ANALYSIS	PROGRESS IN HUMAN GEOGRAPHY
GEOGRAPHICAL RESEARCH	SCOTTISH GEOGRAPHICAL JOURNAL
GEOPOLITICS	SINGAPORE JOURNAL OF TROPICAL GEOGRAPHY
GLOBAL ENVIRONMENTAL CHANGE-HUMAN AND POLICY DIMENSIONS	SOCIAL & CULTURAL GEOGRAPHY
IMAGO MUNDI-THE INTERNATIONAL JOURNAL FOR THE HISTORY OF CARTOGRAPHY	SOUTH AFRICAN GEOGRAPHICAL JOURNAL
INTERNATIONAL JOURNAL OF GEOGRAPHICAL INFORMATION SCIENCE	SPACE AND CULTURE
INTERNATIONAL JOURNAL OF URBAN AND REGIONAL RESEARCH	TRANSACTIONS IN GIS
JOURNAL OF GEOGRAPHY IN HIGHER EDUCATION	TRANSACTIONS OF THE INSTITUTE OF BRITISH GEOGRAPHERS
JOURNAL OF HISTORICAL GEOGRAPHY	URBAN POLICY AND RESEARCH
JOURNAL OF MAPS	ZEITSCHRIFT FUR WIRTSCHAFTSGEOGRAPHIE

JCR-ko <i>Geography</i> arloko 78 aldizkariak	
47 aldizkari artikuluekin	31 aldizkari artikulurik gabe
<p>JOURNAL OF TRANSPORT <i>GEOGRAPHY</i> LANDSCAPE AND URBAN PLANNING LANDSCAPE RESEARCH MOBILITIES NORSK GEOGRAFISK TIDSSKRIFT- NORWEGIAN JOURNAL OF <i>GEOGRAPHY</i> PAPERS IN REGIONAL SCIENCE POPULATION SPACE AND PLACE PROFESSIONAL GEOGRAPHER REGIONAL STUDIES REVISTA DE GEOGRAFIA NORTE GRANDE REVUE DE GEOGRAPHIE ALPINE-JOURNAL OF ALPINE RESEARCH SCRIPTA NOVA SOCIOLOGIA RURALIS SUD-OUEST EUROPEEN TIJDSCHRIFT VOOR ECONOMISCHE EN SOCIALE GEOGRAFIE URBAN <i>GEOGRAPHY</i></p>	

Taula 6. JCR-eko *Geography* arloan kokatuta dauden 78 aldizkariak. Hauetako 2 aldizkari espaiarrak dira eta besteak atzeritarrak dira. 47 aldizkarietan argitaratu dira Espainiako unibertsitateen *Geografia Saileetako* ikertzaileek egindako artikuluek 2010-2016 epean, eta beste 31 aldizkarietan ez.

Iturria: Egileak egina Thomson Reuters ISI-ko (2017) datuetan oinarrituta.

Aldi berean, JCR-ko *Geography* arloko beste 31 aldizkarietan ez dira geografo espainarren artikulurik argitaratu epe berberan (Taula 6). Hauetako aldizkari batzuk tokiko azterketa-eremu batera mugatzen dira, adibidez *Scottish Geographical Journal*, eta beste batzuk nazioarteko dimentsio garbiago bat dauzkate.

4.2. Artikulu kopuru totalaren urtekako bilakaera

2010 urtean 60 artikulu argitaratu ziren eta ondorengo urteetan, artikulu kopuruen igoera ematen da, baina ez modu jarraitu batean (Taula 7). Hau da, orokorrean igoera bat ematen da 2010 urtetik 2016ra bitartean. Baina 2012-2014 urte bitartean gora behera batzuk ematen dira, 2014an artikulu kopuruak beherakada bat emanez. Baina orokorrean, artikulu kopurua nahiko igo da 6 urte horietan. Lehen urtetik azkenera, 18 artikuluren ezberdintasuna dago.

Urtea	Artikulu kopurua
2010	60
2011	71
2012	70
2013	74
2014	71
2015	77
2016	78

Taula 7. Urte bakoitzean publikatu diren artikuluen kopurua (JCR-eko Geography arloko aldizkarietan 2010-2016 epean argitaratuak eta Espainiako unibertsitateen Geografia Sai-leetako autorekoak).

Iturria: Egileak egina Thomson Reuters ISI-ko (2017) datuetan oinarrituta.

Igoera hau ulertzeko kontutan hartu behar da JCR datu-baseko aldizkarietan artikulua argitaratzeak gero eta garrantzi handiagoa daukala Espainako unibertsitateko irakasleen ikerketa-merituak neurtzerako orduan (ANECA, 2007, 2015; CNEAI, 2016; UNIBASQ, 2016). Adibidiez, momentu honetan irakasle batek Geografia Saitetako Unibertsitateko Irakasle Titularreko plazak betetzeko lehiaketara aurkezteko akreditazioa edo baimena lortzeko prozesuan, ikerketa-atalean A kalifikazioa izateko, 25 argitalpen izan behar ditu. Argitalpen horien 1/3 liburuak edo liburu-atalak eta 2/3 artikulua izan behar dira. Artikulu horietatik gutxienez erdia (hau da, 8-9 artikulu) JCR-eko aldizkarietakoak edo SJR-ko lehengo edo bigarren quartileko aldizkarietakoak izan behar dira (ANECA, 2015). Aldi berean, Geografiako irakasle egonkor batek, sei urteko ikerketa jardueraren ebaluazio positibo bat lortzeko, gutxienez 3 artikulu argiratu behar ditu JCR-eko aldizkarietan edo SJR-ko posizio nabarietako aldizkarietan eta beste 2 argitalpen, adibidez 2 liburu edo liburu-atalak argitaletxe ospetsuetan (CNEAI, 2016).

4.3. Artikulu eta aipamen kopurua aldizkari bakoitzean

Taula 8an aldizkari bakoitzaren izena eta bertan zenbat artikulu argitaratu diren, eta artikulu hauek zenbat aipamen izan dituzten (beste JCR-ko artikuluetan) agertzen da. Kontutan hartu behar da artikulu batzuk oso denbora gutxi daramatzatela argitaratuta (batez ere 2016 urtekoak), eta horregatik logikoa da oraindik aipamenik ez izatea.

Bi aldizkari espainarrak (*Boletín de la Asociación de Geógrafos Españoles* eta *Scripta Nova*) artikulu gehiago daukatenak dira (Taula 8). Bien artean 316 artikulu dauzkate (guztien %66), eta aldi berean bien artean 49 aipamen (guztien %5).

Aipamen gehiago daukaten aldizkariak *Applied Geography*, *Journal of Transport Geography* eta *Landscape and Urban Planning* dira. Hiruen artean 565 aipamen dauzkate (aipamen guztien %60), naiz eta hiruen artean bakarrik 37 artikulua izan (guztien %8). Hiru aldizkari hauen batezbesteko aipamen kopuruak artikulua bakoitzeko altuenak ere dira (Taula 8).

Ezberdintasun nabarmen hauek aldizkari bakoitzaren *impact factor* edo eragin-faktoreaarekin erlazionatuta daude. Kasu honetan JCR-eko *Geography* arloaren barnean *Boletín de la Asociación de Geógrafos Españoles* eta *Scripta Nova* aldizkari espainarrak eragin-faktore erlatiboki baxu bat daukate, eta aldiz *Applied Geography*, *Journal of Transport Geography* eta *Landscape and Urban Planning* eragin-faktore erlatiboki altu bat (THOMSON REUTERS ISI, 2017).

Aldizkariak	Artikulu kopurua	Aipamen kopurua	Batezbesteko aipamen/artikulu
BOLETÍN DE LA ASOCIACIÓN DE GEÓGRAFOS ESPAÑOLES	243	44	0,2
SCRIPTA NOVA	73	5	0,1
APPLIED GEOGRAPHY	21	307	14,6
REVISTA DE GEOGRAFIA NORTE GRANDE	15	11	0,7
JOURNAL OF TRANSPORT GEOGRAPHY	12	187	15,6
JOURNAL OF MAPS	12	22	1,8
GEOFORUM	9	37	4,1
EUROPEAN PLANNING STUDIES	7	33	4,7
LANDSCAPE RESEARCH	6	10	1,7
TIJDSCHRIFT VOOR ECONOMISCHE EN SOCIALE GEOGRAFIE	5	17	3,4
URBAN GEOGRAPHY	5	10	2,0
LANDSCAPE AND URBAN PLANNING	4	71	17,8
REGIONAL STUDIES	4	27	6,8
AREA	4	17	4,3
INTERNATIONAL JOURNAL OF GEOGRAPHICAL INFORMATION SCIENCE	4	15	3,8
GENDER PLACE AND CULTURE	4	13	3,3
POPULATION SPACE AND PLACE	3	12	4,0
GEOPOLITICS	3	3	1,0
ERDE	3	1	0,3
GLOBAL ENVIRONMENTAL CHANGE-HUMAN AND POLICY DIMENSIONS	2	17	8,5
INTERNATIONAL JOURNAL OF URBAN AND REGIONAL RESEARCH	2	17	8,5
PROFESSIONAL GEOGRAPHER	2	17	8,5
ERDKUNDE	2	9	4,5
ANTIPODE	2	6	3,0

Aldizkariak	Artikulu kopurua	Aipamen kopurua	Batezbesteko aipamen/artikulu
COMPUTERS ENVIRONMENT AND URBAN SYSTEMS	2	4	2,0
ENVIRONMENT AND PLANNING A	2	4	2,0
GEOGRAPHICAL RESEARCH	2	2	1,0
JOURNAL OF HISTORICAL GEOGRAPHY	2	2	1,0
CANADIAN GEOGRAPHER-GEOGRAPHE CANADIEN	2	1	0,5
CARTOGRAPHY AND GEOGRAPHIC INFORMATION SCIENCE	2	0	0,0
PAPERS IN REGIONAL SCIENCE	2	0	0,0
GEOGRAFISKA ANNALER SERIES B-HUMAN GEOGRAPHY	1	5	5,0
SOCIOLOGIA RURALIS	1	3	3,0
CHILDRENS GEOGRAPHIES	1	2	2,0
ENVIRONMENT AND PLANNING D-SOCIETY & SPACE	1	2	2,0
ANNALS OF THE ASSOCIATION OF AMERICAN GEOGRAPHERS	1	1	1,0
ANNALS OF REGIONAL SCIENCE	1	0	0,0
APPLIED SPATIAL ANALYSIS AND POLICY	1	0	0,0
CULTURAL GEOGRAPHIES	1	0	0,0
GEOGRAFISK TIDSSKRIFT-DANISH JOURNAL OF GEOGRAPHY	1	0	0,0
GEOGRAPHICAL ANALYSIS	1	0	0,0
IMAGO MUNDI-THE INTERNATIONAL JOURNAL FOR THE HISTORY OF CARTOGRAPHY	1	0	0,0
JOURNAL OF GEOGRAPHY IN HIGHER EDUCATION	1	0	0,0
MOBILITIES	1	0	0,0
NORSK GEOGRAFISK TIDSSKRIFT-NORWEGIAN JOURNAL OF GEOGRAPHY	1	0	0,0
REVUE DE GEOGRAPHIE ALPINE-JOURNAL OF ALPINE RESEARCH	1	0	0,0
SUD-OUEST EUROPEEN	1	0	0,0

Taula 8. JCR-eko Geography arloko aldizkari bakoitzean 2010-2016 epean argitaratu diren artikulu eta aipamen kopurua, Espainiako unibertsitateen Geografia Saileetako autorekoak (artikulu kopuru altuenatik baxuenara ordenatuta). Aldizkari espaiarrak urdin kolorez markatuta daude.

Iturria: Egileak egina Thomson Reuters ISI-ko (2017) datuetan oinarrituta.

4.4. Artikulu kopurua ikerketa-gaiaren arabera

4.4.1. Ikerketa-gai orokorrak

Hasteko, artikuluen ikerketa-gai orokorrak aztertu dira (Taula 9, Ilustrazio 1).

Gai orokorrak	Artikulu kopurua	Portzentaia (%)
Giza geografia	237	50
Geografia fisikoa	99	21
Beste batzuk	55	12
Ondare eta paisaia	49	10
Lurralde antolakuntza	20	4
Kartografia eta GIS	17	4

Taula 9. Artikulu kopurua gai orokor bakoitzean (JCR-eko Geography arloko aldizkarietan 2010-2016 epean argitaratuak, Espainiako unibertsitateen Geografia Saileetako autore-koak). Iturria: Egileak egina Thomson Reuters ISI-ko (2017) datuetan oinarrituta.


Taula 9an eta Ilustrazio 1an argi ikusenez **Giza geografiak** hartzen duen garrantzia. Azken 7 urtetan argitaratu diren 477 artikuluetatik, 237 Giza geografiari buruzkoak izan dira, erdiak gutxi gora behera. Giza geografiak giza populazioa aztertzen du, bilakaera demografiakoa, espaziala, etab. Ikerketa kuantitatiboak erabiltzen dituen zientzia da. Artikulu gehienak *Boletín de la Asociación de Geógrafos Españoles* aldizkarian argitaratu dira. Giza geografian ondorengo atalak sartzen dira:

- Hirigintza
- Demografia
- Turismoa
- Ekonomia

Zergatik izan ditu Giza geografiak hainbeste interes eta ikerketa? Zalantzarik gabe, arrazoi batzuk populazioaren hazkundera, demografian eta hirigintzan eman diren aldaketetan bilatu behar ditugu. Gai hauek, gainera, elkar-eraginean daude etengabe eta inpaktua daukate gizartean; hortik ikerlariek duten interesa.

Ondorengo gaia **Geografia fisikoa** da. Hau, Giza geografiarekin batera, lan-esparru garrantzitsuenetakoa izan da azken urteotan Geografia sailean. Lan guztietatik %21 hartzen du. Geografia fisikoa, fenomeno naturalak aztertzen ditu: geomorfologia, klimatologia, edafologia, etab. Hori dela eta atmosfera, biosfera eta geosfera aztertzen dituen zientzia da. Atal honetan gai hauek aztertzen dira:

- Ingurumena (Biogeografia eta Geomorfologia)
- Ura
- Meteorologia eta klima



1 zenbakiko ilustrazioa. Artikuluaren %koa ikerketa gai orokor bakoitzean (JCR-eko Geography arloko aldizkarietan 2010-2016 epean argitaratuak, Espainiako unibertsitateen Geografia Saileetako autorekoak). Iturria: Egileak egina Thomson Reuters ISI-ko (2017) datuetan oinarrituta.

Horiek Geografiako oinarritzko betiko arloak dira eta, beraz, jarraitzen dute ikertzaileentzat eta adituentzat intereseko gaiak izaten.

Hirugarren taldea **Beste batzuk** izango da, %11rekin. Talde honetan denetarik aurkituko dugu. Adibidez hauek izan dira esparru honetan kokatu diren gaietako batzuk: errepide edo bideei buruzko artikulua, hezkuntzari buruzkoak, kirolari edo bidaiari buruzkoak.

Ondoren %10arekin **Ondarea eta paisaia** atala dugu. Izenak esaten duen bezala, paisaiari buruzko gaiak aztertzen dira. Paisaia lurraldearen edozein zatiri esaten zaio eta natur edo giza faktoreen ekintzaren emaitza da.

Lurralde antolamenduari dagokionez, %4a hartzen du eta gehienetan Espainiako zonalde konkretu bateko lurralde antolamenduari buruzko artikulua izan dira argitaratu direnak. Lurralde antolamendua edo lurralde antolakuntza lurraldearen kudeaketa arduratsuz jabetzen den jakintza arloa da. Ezagupen eremu zabala hartzen duen arloa da, besteak beste: hirigintza, soziologia, ekologia, ekonomia ... Lurralde antolamenduaren helburu nagusietariko bat zonalde konkretu bateko garapen orekatua lantzea da. Horretaz gain, bizi kalitatea hobetzea eta ingurumen eta natura baliabide nagusiak babestea. Oro har, zonalde bateko azterketa sakona egiten duten artikulua azaltzen dira atal honetan.

Azkenik, **Kartografia eta GIS**-ari buruzko 17 artikulua ditugu, %4. Kartografia, errealitatea moldatuz mapa geografikoak egiteko zientzia da. Helburua, informazio espaziala modu

eraginkorragoan komunikatzea da. Honetarako GIS (Geografia Informazioko Sistema) programa erabiltzen da.

4.4.2. Ikerketa-gai zehatzak

Zehaztasun handiagoa lortzeko, artikuluen ikerketa-gaiak horrela banatzen dira gai-zehatzaren arabera (Taula 10, Ilustrazio 2).

Gai zehatzak	Artikulu kopurua	Portzentaia (%)
Hirigintza	116	24
Ingurumena	64	13
Demografia	56	12
Ekonomia	55	12
Ondare eta paisaia	48	10
Ura	33	7
Turismoa	25	5
Beste batzuk	24	5
Lurralde antolamendua	20	4
Kartografia eta GIS	19	4
Meteodologia eta klima	15	3
Guztira	477	100


Taula 10. Artikulu kopurua ikerketa gai zehatz bakoitzean (JCR-eko Geography arloko aldizkarietan 2010-2016 epean argitaratuak, Espainiako unibertsitateen Geografia Saileetako autorekoak). Iturria: Egileak egina Thomson Reuters ISI-ko (2017) datuetan oinarrituta.

Artikulu guztietatik %24 (116) **Hirigintzari** buruzkoak izan dira (Ilustrazio 2). Hirigintza gaia azken urteetan aldaketa handiak jasan ditu, Espainiako higiezin burbuilagatik (1998 eta 2007 urteen artean) eta geroko higiezin krisiagatik (MÉNDEZ *et al.*, 2017). Batez ere higiezin burbuilagaren garaian hiriak zabaldu dira hiri-barreiatze edo *urban sprawl* prozesuagatik. Beraz, hirien hazkundeari eta hauen kokapen eta antolakuntzari buruzko artikulu asko argitaratu dira. Baina guzti horietatik azpi sailkapen bat ere egin da, denak ez baitira hirigintzari buruzko gai orokorrak eta. 17 artikulu adibidez, Hirigintza eta garraioak izena eramaten dute, hirietako garraioan zentratu direlako.

Ondoren gehien argitaratu diren artikulua **Ingurumenari** buruzkoak izan dira, %13. Ingurumena sarri azaltzen da komunikabidetan, gero eta sentsibilizazio handiagoa dago eta populazioaren intereseko eta kezka gai bihurtu da; beraz, eta interes horri erantzunez, artikulu asko idatzi dira horren inguruan. Guztira 64 artikulu izan dira eta talde zehatzagotan banandu dira, gai ezberdinak jorratzen dituztelako:

- Batzuk Ingurumena izenarekin bakarrik sailkatu dira.
- Beste batzuk Biogeografia-ri buruzkoak dira eta honen barnean,
 - Landaretza edo Fitogeografia gaia eta
 - Fauna edo Zoogeografia azpi gaiak sortu dira.
- Eta azkenik, Geomorfologia aurki dezakegu.

Demografiari buruzko 55 artikulua ditugu, %12. Arlo honetan igoera nabaritu da eta arrazoia populazio hazkunde masiboan aurki dezakegu. Azken urteetan izugarritzko gorakada eman da populazioan, bizi itzaropena luzatu delako, bizi baldintzak hobetu direlako eta, oro har, bizi kalitatea hobetu delako. Honek lurraldean eta populazio dentsitatean eragin negatiboak ekarri ditu, demografian eta lurralde antolakuntzan aldaketa handiak ezarriz. Beraz azken urteotako tendentzia, demografiari buruzko artikulua kopuruaren igoera izan da.



2 zenbakiko ilustrazioa. Artikuluen %koa ikerketa-gai zehatz bakoitzean (JCR-eko Geography arloko aldizkarietan 2010-2016 epean argitaratuak, Espainiako unibertsitateen Geografia Saileetako autorekoak). Iturria: Egileak egina Thomson Reuters ISI-ko (2017) datuetan oinarrituta.

Ekonomia atalak 47 artikulua biltzen ditu %10arekin, eta azpi taldeak ezarri dira, oso gai orokorra baita. Hau da proposamena:

- Nekazaritza
- Industria
- Elikagaiak
- Politika

Ondoren **Ondarea eta paisaiari** buruzko 48 artikulua argitaratu dira, %10. Adibide gisa, hainbat artikulua Espainiako ingurune ezberdinetan izan diren aldaketa paisajistikoei buruzkoak dira.

%7arekin, **Ura** gaia daukagu eta honi buruzko 33 artikulua argitaratu dira guztira. Oro har, bi dira gai nagusiak esparru honetan, ibai eta erreken analisia da gehien agertzen dena eta hiri eta mendi zonaldeetan ematen diren uren arazoei buruzko artikulua ere agertzen dira.

Turismoa gaiak %5a hartzen du eta 25 artikulua idatzi dira. Gai nahiko komuna da, bertan hiri turistikoetan ematen diren aldaketa eta garapenak aztertzen direlarik. Turismoak, populazioak eta demografiak ere badu zerikusia.

Beste batzuk gaiak, ordea beste inon koka ezin daitezkeen gaiak batzen ditu, %5arekin. Talde honetan 25 artikulua batu dira eta hauek dira gaietako batzuk: birziklapena, harreman sozialak, hezkuntza, teknologia, golfa, musika, feminismoa, historia, etab.

Lurralde antolamendua gaiari dagokionean, 20 artikulua besterik ez dira argitaratu 6 urtean, %4. Hauek espazio edo zonalde jakin bati buruzko azterketa eta analisia izan dira.

Kartografia eta GIS taldeak 19 artikulua ditu, %4. Gaiak anitzak dira, baina ekoizpena beti bera, kartografia.

Amaitzeko **Meteorologia eta klima** dugu %3 batekin (Ilustrazio 2), 15 artikulua biltzen dituelarik. Horietatik batzuk oso ingurune zehatzetako ikerketak jasotzen dituzte eta beste batzuk klimatologiari buruzko lan orokorrak dira.

4.5. Artikulu kopurua azterketa-eremua kokapenaren arabera

Ikerketa-gaiak aparte, aipatzekoa da artikulua batzuen azterketa-eremua Espainiatik kanpo kokatu dela (Taula 11). Naiz eta gehienak Espainiako eremuei buruzkoak izan, gainontzekoak kanpo gelditzen diren zonaldeei buruz idatzitakoak dira. Latinoamerikako azterketa-eremuan ikertu diren artikulua 18 dira, Europako beste nazioetakoak 5 eta munduko beste esparru geografikoetakoak 9.

Azterketa-eremuaren kokapena	Artikulu kopurua
Espainia	445
Latinoamerika	15
Europako beste nazioak	5
Munduko beste nazioak	9

Taula 11. Artikulu kopurua azterketa-eremuaren kokapenaren arabera (JCR-eko Geography arloko aldizkarietan 2010-2016 epean argitaratuak, Espainiako unibertsitateen Geografia Saileetako autorekoak). Iturria: Egileak egina Thomson Reuters ISI-ko (2017) datuetan oinarrituta.

5. ONDORIOAK

5.1. Espainiako unibertsitateen Geografia Saileetako ikertzaileen artikuluak JCR-ko *Geography* arloko aldizkarietan 2010-2016 epean

Espainiako unibertsitateen Geografia Saileetako ikertzaileek 477 artikulu argitatu dituzte JCR-eko *Geography* arloko aldizkarietan 2010 eta 2016 urteen artean. JCR-eko *Geography* arloan 78 aldizkari daude. Hauetako 47 aldizkarietan (2 aldizkari espainarrak eta 45 atzerriarrak) argitaratu dira Espainiako unibertsitateen Geografia Saileetako ikertzaileek egindako artikuluak 2010-2016 epean.

Espainiako unibertsitateen Geografia Saileetako ikertzaileak gero eta artikulu gehiago argitaratzen dituzte JCR-eko *Geography* arloan. JCR eta SJR datu-baseetako aldizkarietan artikuluak argitaratzea, eta gehienbat *impact factor* edo eragin-faktore altua daukatenetan, gero eta garrantzi handiagoa dauka Espainiako unibertsitateko langileen ikerketa-merituak neurtzerakoan (ANECA, 2007, 2015; CNEAI, 2016; UNIBASQ, 2016) eta seguraski aipatutako artikulu kopuru igoera honekin erlazionatuta dago. Ikerketa-merituak horrela neurtzeko arazo batzuk sortzen ditu, JCR-tik eta SJR-tik kanpo dauden Geografiako aldizkarietako artikulu baliotsu asko ez direlako aintzat hartzen (BONASTRA *et al.*, 2013; ARANGO *et al.*, 2014). Gainera ikertzaileen ekarria gizarterako idazten duten argitalpenetara mugatzea ez dirudi oso bidezkoa. Adibidez, ikertzaile geografo batek ahaleginak eta kontribuzioak egiten baditu giza-multzo bateko erabakitze-prosezuetan, aktore ezberdinen artean bitarteko izanez, lurralde antolakuntza jasangarri bat garatzeko, aportazio hoiek ez dira kontuan hartuko bere gizarterako eragin positiboa neurtzeko.

Boletín de la Asociación de Geógrafos Españoles aldizkariak batzen ditu JCR-ko *Geography* arloko Espainiako unibertsitateen Geografia Saileetako ikertzaileen artikulu gehienak. 243 artikulu argitaratu ditu azterketa-epean, hau da 477 artikulu guztien erdia baigo gehiago. Bigarren postuan, *Scripta Nova* 73 artikulu argitaratu ditu. Ala eta guztiz ere, aldizkari espainiar hauen artikuluen bates besteko aipamenak beste JCR-eko artikuluetan ez dira oso ugariak. Aipamen gehien izan dituzten artikuluak *Applied Geography*, *Journal of Transport Geography* eta *Landscape and Urban Planning* aldizkarietan argitaratu dira. Aldizkari hauek JCR-eko *Geography* arloaren barnean *impact factor* edo eragin-faktore erlatiboki altuak dauzkate (THOMSON REUTERS ISI, 2017).

5.2. Espainiako unibertsitateen Geografia Saileetako ikerketa-gai nagusiak

Aztertutako artikulu guztien %24 hirigintzari buruzkoak izan dira. Ondoren, gehien argitaratu diren artikuluak ingurumenari buruzkoak (biogeografia eta geomorfologia barne) izan dira (%13) eta demografiari buruzkoak (%12). Ekonomia atalak (nekazaritza, industria, elikagaiak eta politika sartuz) artikulu guztien %10 bildu du. Ondoren ondarea eta paisaiari (%10), urari (%7) eta turismoari buruzkoak (%5) kokatu dira. Seguraski giza Geografia, eta honen barnean hirigintza, izan da gai nagusia JCR-eko *Geography* arloko aldizkariak aztertu ditugulako. *Geography* arloan dauden aldizkariak Geografiako adar sozialei buruzkoak dira batez ere. Gaien portzentai guzti hauek ezberdinak izango lirateke beste arloetako aldizkariak gehitzen badira, geografoen ikerketarekin zerikusia dutenak noski (Taula 3). Adibidez *Physical Geography* arloan Geografia fisikoko artikulu asko argitaratzen dira (GARCÍA RUIZ, 2008).

Deigarria da lurralde antolamendua gaiari dagokionean, 20 artikulu besterik ez direla argitaratu 7 urtetan (%4). JCR-ko aldizkarietan oso gai espezializatuak eta gai ezberdinetakoak argitzen direla esan nahi du. Nahiko zaila dirudi ikuspegi-integratu batetik egindako

lurralde-diagnosi eta plangintzari buruzko ikerketak argitaratzea, naiz eta oso interesgarriak izan errealitatean aplikatzeko.

Amaitzeko kartografia eta GISari buruzko artikuluak aurkitzen dira (%4). Hauek GISeko ezaugarrien garapenean zentratuta daude, baina kontutan hartu behar da aipatutako beste artikulu askotan GIS tresna bezala erabili dela.

Emaitz hauekin, garbi geratzen da gaur egungo Geografian dagoen ikerketa-gai aniztasuna. Barietate hau oso positiboa da, behintzat komunikazioa eta ulermena mantentzen bada gai ezberdinen artean, gehiegizko zatiketa saihesten bada eta terminologia homogeneoa erabiltzen bada (NOGUÉ y ROMERO, 2006). Aldi berean, beste zientzia batzuk aldagai espazialean interesatu dira Geografia Informazioko Sistemen (GIS) hedapenarekin batera, eta eremu berriak sortu dira geografoentzat elkarlanerako beste profesional eta akademikoekin. Gai berri eta zehatzagoak sortu dira eta horregatik azken hamarkadetan geografo batzuen ikerketa-gaiak gero eta espezializatuagoak dira. Geografo ikertzaileen lurralde fenomeno ezberdinen interpretazioa beste diziplina zientifikoko ikertzaileena baino beteagoa izan behar da, bere ekarpen geografiko baliotsua gehitzeko (CAPEL, 2010). Horretarako, geografo ikertzaileek, fenomeno espazialak aztertzerakoan eta azaltzerakoan, lurralde-sistemaren elementu ezberdinen eta haien arteko erlazioen eragina integratu behar dute, espazio eta denboraren eskala desberdinetan.

Artikulu kopuru adiezgarri batean (29tan hain zuzen ere) azterketa-eremua Espainatik kanpo kokatu dela ere aipatu beharra dago. Geografo espainarrak, nazioarteko ikerketa-proiektuetan beste nazioarteko ikertzaile batzuekin elkarlanean aritzen direla baieztatzen du (OLCINA & LOIS, 2013), bereziki Latinoamerikakoekin.

5.3. Ikerketa-lan honen mugak

Ikerketa-lan hau JCR-ko *Geography* arloko aldizkarietako artikuluetan oinarritu da, artikulu kopuru erabilgarri bat mugatzeko. Baina geografo espainarrak beste JCR-ko arlo batzuetako (Taula 3) aldizkarietan ere argitaratzen dituzte beraien ikerketa emaitzak (GARCÍA RUIZ, 2008). Gainera SJR datu-basean (Taula 4) Geografiari buruzko aldizkari askoz gehiago daude JCR-en baino. Adibidez, SJR-ko *Geography, Planning and Development* arloan 623 aldizkari kokatzen dira, eta berriz JCR-ko *Geography* arloan 78 aldizkari bakarrik.

Geografiako aldizkari espainar batzuk JCR-en eta SJR-en ere sartuta ez daudela kontuan hartu behar da, baina adibidez DIALNET webgunean eskuragarri daude. DIALNET aldizkari zientifiko espainar guztiak zabaltzeko plataforma bat da, Geografiari buruzko 175 aldizkari dituen (UNIVERSIDAD DE LA RIOJA, 2017). Askotan aldizkari ugari hauek argitaratzen dituzten artikuluak eskualdeko eta tokiko aldagai eta prozesu espazialei buruzkoak izaten dira eta oso interesgarriak izaten dira ikerketa-gai geografiko ugari ikutzen dituztelako (BONASTRA *et al.*, 2013; ARANGO *et al.*, 2014).

JCR-eko aldizkari gehienak ingelesez argitaratzen dira eta ez daude eskuragarri dohainik *open access* sistemaren bidez. GARCÍA MARTÍNEK (2015) kritikatzten du ingelesa hizkuntza pribilegiatua dela argitaletxe komertzialetan, eta hauek Estatu Batuetan eta Erresuman Batuan kokatuta daude batez ere. Gaur egun errazagoa da *open access*-ko aldizkariak argitaletxe txikietan aurkitzea, non askotan artikuluak ingelesez gain, beste hizkuntza batzuetan idatziak egoten dira eta (gaztelera, frantsesa, alemaniarra, etab.) (GARCÍA MARTÍN, 2015).

5.4. Etorkizunerako ikerketa

Etorkizunerako hobekuntza bezala, Espainiako unibertsitateen Geografia Sailen ikerketa-gaiak modu beteago eta zehatzago batean aztertzeke, beste JCR-eko arloetako aldizkariak (geografoen ikerketarekin zerikusia dutenak) kontutan hartzea egokia izango da. Ez bakarrik Espainako unibertsitateenak, edozein Estatu jakineko unibertsitateen Geografia Sailen ikerketa-gaiak ere aztertu daiteke, *Web of Science* webgunearen bidez JCR-ko artikulua, autoreen helbidearen irizpide bidez sailkatu daitezkeelako.

Baita SJR-eko eta DIALNET-eko aldizkariak gehitzea interesgarria izango litzateke aldizkari kopurua handitzeko eta *open access*-eko aldizkari eleaniztun edo poliglota gehiago sartzeko. Hori bai, orain arte SJR-eko eta DIALNET-eko aldizkarien artikulua ezin dira bilatu autoreen heldidearen irizpideagatik, eta aukera hori beharrezkoa izango da Espainako unibertsitateen Geografia Saitetako ikertzaileen artikulua bereiztu ahal izateko.

Etorkizunerako Geografiako ikerketa-gaien sailkapena sakonago bat eratzea egokia izango litzateke artikulua kopuru handiago bat aztertzeke. Horrela, beste batzuk kategoria kenduko da eta gutxien ikerketa-lerro guztiak sartuko dira gai banandu bezala (genero-Geografia, Geografiaren didaktika, etab.).

6. BIBLIOGRAFIA

ANECA (2007): *Programa de evaluación de profesorado para la contratación: Principios y orientaciones para la aplicación de los criterios de evaluación*. Madrid: Agencia Nacional de Evaluación de la Calidad y Acreditación, Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.

ANECA (2015) *Programa ACADEMIA de acreditación nacional para el acceso a los cuerpos docentes universitarios. Real Decreto 415/2015, de 29 de mayo, por el que se establece la acreditación nacional para el acceso a los cuerpos docentes universitarios*. Madrid: Agencia Nacional de Evaluación de la Calidad y Acreditación, Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.

ARANGO, A., BENACH, N., CAPEL, H. & CASALS, V. (2014): Scripta Nova en 2014. Las revistas científicas y los currículos académicos. *Scripta Nova*, nº 499. <<http://www.ub.es/geocrit/sn/sn-499.htm>>

ASOCIACIÓN DE GEÓGRAFOS ESPAÑOLES (2017): *Grupos de trabajo*. Eskuragarri hemen: <http://www.age-geografia.es/site/grupos-de-trabajo/>

BONASTRA, Q., CAPEL, H., MARTÍNEZ-RIGOL, S., CASALS COSTA, V. & BOUZA, J. (2013): Scripta Nova **en 2013. Nuevas iniciativas y debates sobre las revistas científicas**. *Scripta Nova*, nº 462. <<http://www.ub.es/geocrit/sn/sn-462.htm>>

BOSQUE, J. (2015): Neogeografía, Big Data y TIG: problemas y nuevas posibilidades. *Polígonos*, nº 27, pp. 165-173.

BUZAI, G.D. (2015): Evolución del pensamiento geográfico hacia la Geografía Global y la Neogeografía. En: FUENZALIDA, M., BUZAI, G.D., MORENO JIMÉNEZ, A., GARCÍA DE LEÓN, A. *Geografía, geotecnología y análisis espacial: tendencias, métodos y aplicaciones*. Santiago de Chile: Triángulo, pp. 4-16.

CAPEL. H. (2010): Geografía en red a comienzos del tercer milenio para una ciencia solidaria y en colaboración, *Scripta Nova*, nº 313. <<http://www.ub.es/geocrit/sn/sn-313.htm>>.

CNEAI (2016): Resolución de 24 de noviembre de 2016, de la Comisión Nacional Evaluadora de la Actividad Investigadora, por la que se publican los criterios específicos aprobados para cada uno de los campos de evaluación. *Boletín Oficial del Estado*, 286: 82964-82983.

DE LÁZARO Y TORRES, M.L. & GONZÁLEZ GONZÁLEZ, M.J. (2013): La Geografía española a través de las tesis doctorales leídas entre los años 1990 y 2012. Líneas y temas. En: LASANTA, T. & MARTÍN VIDE, J. (Coords.). *La investigación Geográfica en España (1990-2012)*. Madrid: Asociación de Geógrafos Españoles e Instituto Pirenaico de Ecología, pp. 59-86.

FARINÓS, J. (2000): Análisis geográfico regional y planificación territorial, *Cuadernos de Geografía*, nº 67-68, pp. 57-76.

GARCÍA MARTÍN, M. (2015): Las revistas de Geografía en el *Journal Citation Reports*: lucro económico versus acceso abierto. *Revista Española de Documentación Científica*, nº 38: e105.

GARCÍA RUIZ, J.M. (2008): Las citas internacionales de las revistas españolas de Geografía. *Boletín de la Asociación de Geógrafos Españoles*, Nº 46, pp. 207-225.

GÓMEZ MENDOZA, J. (2013): La evolución de la investigación Geográfica española durante los últimos decenios. En: LASANTA MARTÍNEZ, T. & MARTÍN VIDE, F.J. (Coords.) *La investigación geográfica en España (1990-2012)*, Madrid: Asociación de Geógrafos Españoles e Instituto Pirenaico de Ecología, pp. 21-42.

LASANTA MARTÍNEZ, T. & MARTÍN VIDE, F.J. (Coords.) (2013): *La investigación geográfica en España (1990-2012)*. Madrid: Asociación de Geógrafos Españoles e Instituto Pirenaico de Ecología.

MATA, R. (2013): La Asociación de Geógrafos Españoles y la investigación en Geografía. En: LASANTA, T. & MARTÍN VIDE, J. (Coord.). *La investigación Geográfica en España (1990-2012)*. Madrid: Asociación de Geógrafos Españoles e Instituto Pirenaico de Ecología, pp. 329-346.

MÉNDEZ, R., ABAD, L.D. & ECHAVES, C. (2015): *Atlas de la crisis. Impactos socioeconómicos y territorios vulnerables en España*. Valencia: Tirant Humanidades.

NOGUÉ, J. & ROMERO, J. (Eds.) (2006): *Las otras geografías*. Valencia: Tirant lo Blanch.
OLCINA, J. & LOIS, R.C. (2013): Grupos y redes de investigación en la Geografía española: de la investigación individual a la investigación multidisciplinar. En: LASANTA, T. & MARTÍN VIDE, J. (Coord.). *La investigación Geográfica en España (1990-2012)*. Madrid: Asociación de Geógrafos Españoles e Instituto Pirenaico de Ecología, pp. 119-146.

SCIMAGO (2017): *SJR - SCImago Journal & Country Rank. Scientific indicators developed from the information contained in the Elsevier's SCOPUS database*. Eskuragarri hemen: <http://www.scimagojr.com>

THOMSON REUTERS ISI (2017): *ISI Web of Science (WOS). Journal Citation Reports (JCR)*. Thomson Reuters ISI-Institute For Scientific Information. Eskuragarri hemen (Fundación Española para la Ciencia y Tecnología, FECYT): www.accesowok.fecyt.es/login/

UNIBASQ (2016): *Ebazpena, 2016ko urriaren 19koa, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziako zuzendariarena, 2016ko urriaren 13an Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziako Aholku Batzordeak onartutako Kontratututako*
346 Lurralde : inves. espac. 41 (2018), p. 323-347 ISSN 0211-5891 ISSN 1697-3070 (e)

Irakasleak eta Ikerlariak eta, Unibertsitate Pribatuetako Irakasle doktoreak ebaluatzeko eta akreditatzeko Protokoloa jakinarazten duena. Vitoria-Gasteiz: Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia.

UNIVERSIDAD DE LA RIOJA (2017): *Revistas de la Submateria Geografía*. Eskuragarri hemen: <https://dialnet.unirioja.es/revistas/submateria/1240>

VILÀ VALENTÍ, J. (2008): El papel de la Geografía en la sociedad actual. *Lurralde*, nº 31, pp. 293-307.